

## **GAIA: XXX. INGURUMEN LEHIAKETA 2019 ARAUTUKO DUTEN OINARRIEN PROPOSAMENA**

### **(BIGARREN HEZKUNTZAKO BIGARREN ZIKLOA)**

#### **1.- XEDEA:**

Honako eskola-lehiaketa honen xedea udalerriko eskola-zentroetan Santurtziko Eskola Agenda 2030 zabaltzea da. Beronek lotura zuzena du Nazio Batuetako Garapen Jasangarriaren Helburuekin. Horregatik, lehiaketaren proposamena egiteko aipatu helburu horien oinarrietako bat erabili nahi da, honakoa hain zuzen: GJHren bost jarduketa-esferak, “bost P-ak” izenaz ezagunak eurak: Pertsonak, Planeta, Pakea, Pausuak ematea eta Partenariatuak-itunak.

**PERTSONAK:** Pobrezia eta gosearekin amaitzea alderdi guztietan, bai eta zaintzea ere, gizaki guztiok duintasunez, berdintasunean eta ingurumen osasungarrian bizitzeko eskubidea.

**PLANETA:** Planeta narriaduraren aurka babestea, nola eta kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatuz, baliabide naturalen kudeaketa jasangarriaren bidez eta aldaketa klimatikoari aurre egiteko premiazko neurriak ezarriz, zertarako-eta oraingo zein etorkizuneko belaunaldien beharrei erantzun emateko aukera izateko.

**PAUSUAK EMATEA:** Batetik, gizaki guztiok bizimodu oparo eta zoriotsua izateko bideak urratzea; eta bestetik, lan egitea aurrerapen ekonomiko, sozial eta teknologikoa naturarekin bat etorritz gerta dadin.

**PAKEA:** Gizarte bakezale, justu eta inklusiboak sustatzea, beldurretik eta indarkeriatik salbu egongo direnak. Ezin da garapenik izan bakerik ez bada, ez eta bakerik ere garapen jasangarririk ez bada.

**PARTENARIATUAK/ITUNAK:** Baliabideak sortu eta eragin agenda hau ezar dadin, nola-eta mundu mailako itun bat eginez garapen jasangarria sustatzeko. Berau elkartasunean egon beharko da oinarrituta, eta batez ere, txiroenen eta ahulenen beharrei erreparatu beharko die. Herrialde guztiak, interesatu guztiak eta pertsona guztiak arituko dira lankidetzan.

Testuinguru honetan Udalak, Garapen Jasangarriaren xedeak eta helburuak bere eginez, garapen jasangarriarekiko konpromisoa herritar eta eragile sozioekonomiko guztiei zabaldu nahi die bere esku dituen bide guztiak erabiliz.

Garapen Jasangarriaren helburuak gazte eta hezkuntza zentroi helarazi nahi zaizkie azken urteotan egiten ari den ingurumen-lehiaketaren bidez. Horretarako 2019ko gaiak aipatutako "bost P" horietan oinarrituko dira, eurak lehen eta bigarren hezkuntzako ziklo-akademikoen artean bantuz. Ziklo bakoitzaren helburua JGH bat edo batzuk dagokien P-rekin lotzea izango da, parte-hartzaileen adinari egokitutako jarduera artistiko baten bidez.

**2.- BIGARREN HEZKUNTZAREN BIGARREN ZIKLOAREN MODALITATEA (5. kategoria):**  
bideoaren edizioa.

### **3.- GAIA**

**Bideo bat** egin "pausuak ematea" kontzeptua zabaltzeko helburuz, nola eta honako galdera honi erantzun emanez: **Zer da zuretzat pausuak ematea?** Erantzunean "**Ez utzi inor atzean**" leloa agertu beharko da, bai eta Eskola Agenda 2030-ek pausuak emateko proposatzen dituen moduak eta aurrera egitearekin lotzen ohi diren GJH-ak ere.

### **4.- ESKAERAK ONARTZEKO:**

Kategoria bakoitzean adierazitako urteetan jaiotako eta Santurtzin erroldatuta edo Santurtziko hezkuntza-zentroetako baten batean eskolaratuta dauden guztiek hartu ahal izango dute parte. (2003 eta 2004an jaiotako ikasleak).

Ulertzen da lehiaketan parte hartzen duten adin txikikoek gurasoen edo legezko tutorearen baimena dutela.

### **5.- LANEN AURKEZPENA**

- **Hizkuntza:** Lanak euskaraz edo gaztelaniaz egongo dira.
- **Aurkezteko epea eta tokia:** Lanak **2019ko maiatzaren 3an** aurkeztuko dira **9.00etatik 14.00etara Hirigintza eta Ingurumen arloko bulegoetan**, Santurtziko parkea 10 (DYAren ondoan).
- **Lanen aurkezpena:**
  - Bideoa formatu digitalean aurkeztuko da eta berarekin batera, honako informazio hau ere aurkeztu beharko da:
    - Parte-hartzaile bakoitzaren izen-abizenak.
    - Parte hartzaile bakoitzaren jaiotze-data
    - Parte hartzaile bakoitzaren helbidea

- Matrikulatuta dauden hezkuntza-zentroaren izena.
  - Parte hartzaile bakoitzaren maila.
- **Formatua:**
    - Bideoek 3 minutuko iraupena izango dute gehienez.
    - Bideoak askotarikoak izan daitezke: gidoi bakar bati lotutako irudi-sorta bat, ahozko aurkezpen bat, elkarriketa bat... Horretarako gakoak eta jarraibideak egileen esku geratuko dira.
    - **Bideoaren formatua:** PPS, Windows Media video (WMV), 3GP (telefonoak), AVI, MOV, MP4 (Ipod/PSP), MPG, FLV (Adobe Flash), SWF (Shockwave Flash), MKV (h.264).
      - Oharra: Bideoak ikusteko arazo teknikorik bada, Santurtziko Udalak parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko aukera izango du berori ikusteko behar diren baliabide teknikoak jar ditzaten.
  - **Beste kontu batzuk:**
    - Lanak banaka edo gehienez hiru laguneko taldetan egingo dira; ikasleek lan bana aurkeztu ahal izango dute, gehiagorik ez, banaka edo talde bateko kide gisa.
    - Bideoa originala izango da (ekoitzi dutenek asmatua) eta lehenago argitaratu gabea.
    - Indarkeriarik, hizkera iraingarriak, lizunkeriarik, etnia edo sexu-bazterketarik edo bestelako eduki desagokirik agertzen duten bideoak lehiaketatik kanpo geratuko dira.
    - Ekoizleek bideoa egiteko ezin izango dute beste hirugarren batek sortutako baliabiderik erabili, hala nola, musika, abestien hitzak, argazkiak eta abar, ez baldin badute horien eskubiderik jaso. Baina musika eta efektu berezi libreak erabiltzeko aukera izango dute baldin eta beroriek partekatu eta eraldatzeko baimena beren-beregi agertzen badute.
    - Parte-hartzaileek beren gain hartuko dute bideoan agertzen diren kideen baimen guztiak izatearen ardura, baldin eta ezagutzeko moduan azaltzen badira, hau da, aurpegia ikusgai.
    - Parte hartzaileek izango dute bideoan azaltzen diren marka erregistratuen gaineko baimena jasotzearen ardura beren gain.
    - Adin txikiko parte-hartzaileek, guraso edo tutorearen baimena izan beharko dute lehiaketan parte hartu eta, hala badagokio, bideoan agertzeko.
    - Lehiakideek beren gain hartuko dute hirugarrenen eskubiderik ez dagoelako ardura eta eurak izango dira irudi-eskubide edo horrelakoek eragindako erreklamazio guztien erantzule.
    - Santurtziko Udalarari emango zaizkio saritutako lanak ustiatzeko eskubideak. Eskubideok bideoak erreproduzitu, banatu, zabaldu, eraldatu eta egokitzeko erabiliko dira, irabazi asmorik gabeko lehiaketa honekin lotutako zabalpen jarduera publikoetan erabiltzeko aldera.

## **6.- AURKEZTUTAKO LANAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK:**

- Batez ere originaltasuna baloratuko da.
- Proposamenaren erabilgarritasuna baloratuko da.
- Inpaktua, erakargarritasun bisuala eta diseinua baloratuko dira.
- Lanak egitean jarritako ahalegina baloratuko da.
- Gure udalerriari buruzko ideia zehatzak sartzea baloratuko da.

## **7.- LEHIAKETAREN EPAIMAHAIA:**

**Kideak:** Honako hauek osatuko dute epaimahaia:

- Sara López, Hirigintza eta Ingurumen Arloko arkitekto teknikoa, Tokiko Agenda 21eko arduraduna. Epaimahaiaren idazkari jardungo du.
- Guillermo Pérez Barragán, Tokiko Agenda 21eko jardueren koordinatzailea.
- Arkaitz López Sánchez, Tokiko Agenda 21eko jardueren dinamizatzailea.
- Ixone González Roncero, Tokiko Agenda 21eko jardueren dinamizatzailea.

#### **Ordezkoak:**

- Marta Tomé, Hirigintza eta Ingurumen arloko zuzendaria.
- Aurora Iglesias, Hirigintza Kudeaketaren AAB

#### **8.- SARIA:**

300 euroko sari sorpresa izango da. Taldean kide bat baino gehiago egonez gero, zenbatekoa euren artean banatuko da.

#### **9.- BALDINTZA OROKORRAK:**

- Ulertzen da lehiaketan parte hartzen duten adin txikikoek alde aurretik guraso edo tutorearen baimena jasoa dutela.
- Ez dira aintzat hartuko lehiaketaren izpirituarekin bat egiten ez duten bideoak, ez eta gizakion duintasunaren aurka aritu edo oinarritzko balore eta eskubideak urratzen dituztenak ere.
- Saritutako bideoen kasuan, Udalak hautagaien legezko tutoreei agiri idatzia eskatuko diete ofizioz, non agertu beharko den legezko tutoreek baimen ematen dutela euren menpeko adin txikikoaren irudia bideoan ateratzeko.
- Lehiakide bakar batek ezin izango du sari bat baino gehiago irabazi.
- Epaimahaiak erabakiko du saria nori eman, aurkeztutako lanen kalitateari erreparatuta.
- Aurrekoa gorabehera, kategoriaren bat sari-jabe gabe geratuko balitz, aipatutako kategoria horri dagozkion sariak hurrengo kategorietan banatu ahal izango liriateke, betiere lanen kalitateari erreparatuta eta epaimahaiak hala arrazoitua.
- Edonola ere, epaimahaiak lanek gutxiengo kalitaterik ez dutela ikusiko balu, saria jabe gabe geratzea erabaki lezake.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta antolakuntza taldearen azken erabakia, apelaezina bera, onartzea dakar.
- Santurtziko udalak oinarrietan aurreikusi ez den edozein gertakizunen inguruko erabakia hartzeko eskumena izango du, bai eta lehiaketa aldatu edo bertan behera uztekoa ere, ezinbestez hala egin behar izanez gero.
- Interesatuari ez zaizkio aurkeztutako lanak itzuliko.

#### **10.- PUBLIZITATEA:**

Aipatutako oinarriak ahalik eta gehien zabalduko dira Udalaren webgunearen bidez, egoki deritzen beste batzuei ezertan eragotzi gabe.

#### **11.- ERAKUSKETA**

Lanak erakusgai jarri ahal izango dira **edozein informazio-bide erabiliz (udalaren webgunea...)**

#### **12.- SARI BANAKETA:**

- Sariak ekitaldi berezi batean banatuko dira, **2019ko maiatzaren 17an, 12:00etan** Casa Torre jauregian.
- Ekitaldian parte hartu duten zentro bakoitzaren ikasle ordezkariak egon beharko dute. Justifikatutako arrazoi bat tarteko saritutakoa ezin izango balitz bertaratu, beste bat izendatu ahal izango luke, ekitaldi horretan saria bere izenean har dezan.

### **13.- SANTURTZIKO UDALAREN ESKUBIDE ETA ERANTZUKIZUNA:**

- Santurtziko Udalak eskumena izango du lehiaketa murriztu, luzatu, aldatu edo bertan behera uzteko, baldin eta berau behar bezala egitea eragotziko luketen ohiz kanpoko egoerarik sortuko balitz, eta egoera horien berri eman beharko luke lehiaketan parte hartzen duten ikasleek kalterik jaso ez dezaten.
- Horrez gain, lehiaketaren funtzionamendu egoki, normal eta araupekoa kolokan jarri, iruzur egin edo aldatzen duen edozein lehiakide lehiaketatik kanpo uzteko eskumena izango du.
- Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek eta epaimahaiaren erabakia onartzea dakar. Oinarriak oso-osorik edo parte bat onartzen ez duen lehiakidea lehiaketatik kanpo geratuko da ezinbestez, eta horren guztiorren ondorioz, administrazioak ez du izango pertsona horrekin hartutako betebeharra zertan bete.
- Aurkeztutako lanak udalak egoki deritzon moduan erabili ahal izango ditu.